

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
13/2009	R13/2011	2/05/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

## **R 13/2011 ebazpena**

### **13/2009 espedientea**

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 2an.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea Carlos Palao Taboada jaunak –lehendakaria– eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunek –batzordekideak– eratzen dute, eta Arbitraje Batzorde horrek zera

## **ERABAKI DU**

Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka planteatutako gatazkari buruz, ENTIDAD SL (IFZ: ..... ) zergapetuaren helbide fiskalari dagokionez. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 13/2009 espediente zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1. Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak planteatu zuen, 2009ko urriaren 23ko idazkiaren bitartez. Agiria egun horretan bertan sartu zen Arbitraje Batzorde honetan. Idazki horrekin batera, beste zenbait idazki ere erantsi ziren, batez ere urriaren 19ko data duen Txostena. Bertatik, jarraian laburbilduko diren aurrekariak bildu ditugu:

1. 2008ko uztailaren 11n, Bizkaiko Foru Ogasunak idazki bat bidali zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (ZAEA) Ordezkaritza Bereziari, ENTIDAD SL entitatearen helbide aldatetaren proposamenarekin. Aldaketa Bilbotik (AAA kaleko .... zk.) O Burgo - Culleredo udalerrira (BBB etorbidea,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
13/2009	R13/2011	2/05/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

..... zk.), A Coruñaeko probintzian, egitekoa zen 2005eko otsailaren 14ko eraginekin, data horretan eratu baitzen sozietatea. Helbide aldaketaren proposamena oinarritzeko, 2008ko uztailaren 10ean Bizkaiko Foru Ogasunaren Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak bidalitako txosten bat hartu zen.

2. 2009ko uztailaren 20an, ZAEAko Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziak idazki bat bidali zion Bizkaiko Foru Ogasunari. Idazki horretan, entitatearen helbide aldaketarekin ados bazegoen ere, desadostasuna adierazi zuen proposamenarekin, helbide fiskal berria Foru Ogasunak adierazitako tokian kokatzeari dagokionez eta ez Lugoko hirian (CCC kalea, ..... zk.) eta baita Foru Ogasunak proposatutako atzeraeraginari dagokionez ere. Aldiz, atzeraeraginaren data 2007ko azaroaren 1ean jartzea proposatu zuen.
  3. 2009ko irailaren 7an, Bizkaiko Foru Ogasunaren Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak txosten berri bat egin zuen. Bertan, ZAEAk egindako proposamena onartu egiten zen, hain zuzen ere entitatearen helbide fiskala Lugon kokatzeari zegokionez. Edonola ere, ondorioetan berretsi egiten zuen atzeraeragina 2005eko otsailaren 14koa izan behar zuela. Txosten hori ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziari helarazi zitzaion 2009ko irailaren 21ean.
  4. 2009ko irailaren 13an, ZAEAko Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza bereziak erantzun egin zuen, helbide aldaketa onartuz baina, berriro ere, proposatutako atzeraeraginaren data gaitzetsiz.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako gatazka izapidetzeko onartu zuen Arbitraje Batzorde honek 2010eko abenduaren 20an. Ondorioz, Estatuko Administrazioari alegazioak aurkez zitzala eskatu zion Batzorde honek, espedientea azaldu baino lehen.
  3. ZAEAk alegazioak aurkeztu zituen zuzendari nagusiaren 2011ko otsailaren 9ko idazki baten bitartez. Batzorde honetan 2011ko otsailaren 11n sartu zen.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
13/2009	R13/2011	2/05/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Alegazioen idazkian, ZAEAK berretsi egiten ditu, funtsean, adierazi diren inguruabarrak, hau da, behin Foru Ogasunak entitatearen helbide fiskala aldatzea onartuta, entitatea Lugon kokatu behar zela eta ez A Coruñan. Gatazka, ondorioz, helbide aldaketaren atzeraeraginaren datari mugatuta geratu zen.

2. Halaber, zera adierazi zuen: “ZAEAK, hasiera batean, 2007ko azaroaren 1eko eraginak edukiko zituen atzeraeragina mantenduta, eta prozedura honek iraun bitartean ZAEAK ezagutu ahal izan dituen datu berriak ikusita, batez ere Foru Aldundiak aurkeztu dituenak, ZAEAK aukera du hasieran edukitako irizpidea aldatzeko. Hori dela eta, Zerga Administrazio honek BFaren nahiak onartzen ditu, eta helbide aldaketaren atzeraeraginaren datan gatazkarik ez dago, ondoren gertatu diren inguruabarrak direla-eta”.

3. Azken batean, beraz, ZAEAK dio Bizkaiko Foru Aldundiaren nahiak onartzen dituela eta, hala, zera eskatzen duela: “ZAEaren adostasuna onar dadila entitatearen helbidearen eraginetarako atzeraeraginaren data eraketaren data eramateari dagokionez, hau da, 2005eko otsailaren 14ra [...]. Eta bi alderdiak ados daudenez ENTIDAD SL (IFZ: ..... ) sozietatearen helbide fiskala Lugoko CCCC kaleko .....zk.an kokatzean (nabarmena da akats bat dela eta “CCC” esan nahi zuela) sozietatea eratu zenetik 2005/02/14an 2008/08/12ra, gertatutako inguruabarretatik kontuan har dadila ez dagoela inolako gatazkarik bi administrazioen artean”.

4. ZAEaren eskaera Arbitraje Batzorde honek “egun gatazkarik ez dagoela aitortzeko” bidera ezina da zorrozki, izan ere, gatazka ez da prozedura hau besterik. ZAEaren eskaera hori, egiatan, bat dator bere nahian atzera egitearekin edo, zehazkiago esatearren, Bizkaiko Foru Aldundiaren nahiaren aurrean amore ematearekin, izan ere gatazka administrazio horren aurka planteatu da eta ez da bera izan gatazka planteatu duena. Amore ematearen irudia, ordea, ez da aurreikusi Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, abenduaren 28ko 1760/2007 ED bidez (azken horren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira) onetsitako Batzorde honen Araudiari dagokionez ordezkio modura aplikatu behar dena hain zuzen. Aldiz, irudi

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
13/2009	R13/2011	2/05/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

hori ageri da Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 75. artikuluan. Lege horren 2. idatz-zatiak zera xedatzen du: “Demandatuek amore emandakoan, epaile edo auzitegiak, beste izapiderik gabe, demandatzailearen auziekin bat datorren epaia emango du, non eta horrek ez duen ordenamendu juridikoa nabarmen hausten...”.

AJAPELen jasotako irudia, eskubideari uko egiteaz gain, hemen aplikagarri ez dena, atzera egitearena da. Lege horren 91.2 artikulua zera finkatzen du: “Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interes horiek”. Atzera egitea, prozedura amaitzeko modu bezala, aplikatu izan du jada Arbitraje Batzorde honek aurreko beste prozedura batzuetan. Horietan, gatazkaren hartzaile izandako Administrazioak amore ematen zuen esanbidez Administrazio sustatzailearen nahien aurrean. Horren adibide dira abenduaren 20ko 2/2010 ebazpena, 34/2008 espedientean emana, eta 8/2011 ebazpena, martxoaren 28koa, 12/2009 espedientean emana. Amore ematerakoan ez bezala, atzera egiten denean ez da beharrezkoa administrazioak esanbidezko adierazpena egitea gaiaren muinari dagokionez, nahiz eta horrek, noski, ez dituen aldatzen ebazpenetik etorritako benetako ondorioak.

Horren ondorioz, Arbitraje Batzordeak zera

### **ERABAKI DU**

- 1º. ZAEAREN amore ematea onartzea Bizkaiko Foru Aldundiak ENTIDAD SL (IFZ: ..... ) erakundearen helbide aldatetari buruz planteatutako gatazkan.
- 2º. Jarduerak amaitu eta artxibatzea agintzea, eta baita xede horretarako bidalitako dokumentazio guztia itzultzea agintzea ere.